



ETORKIZUNA

**2019KO  
MEMORIA**



**Nafarroa etorbidea 6  
20400 Tolosa  
Telf: 943 655 004**



[www.galtzaundi.eus](http://www.galtzaundi.eus)



[galtzaundi@galtzaundi.eus](mailto:galtzaundi@galtzaundi.eus)



688 738 418



@galtzaundi



galtzaundi



@galtzaundi.eus

## BABESLE ETA LAGUNTZAILEAK



IBARRAKO UDALA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



GASTEIZ  
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



ANOETAKO  
UDALA



Irurako  
udala



AMEZKETAKO UDALA



Zizurkilgo Udala

## KIKE AMONARRIZ GORRIA

Galtzaundiko lehendakaria

Ekimen handikoa izan da joandako urtea. 2017an amaitu zen Galtzaundi eraberritzeko prozesua eta handik eratorritako gogoeta sakonek zehaztutako ibilbideari jarraitu zaio eta ugariak izan dira jorratutako lan-ildoak.

Galtzaundiko zuzendaritza berritzea zen orduan jarritako helburu handietako bat. Ordutik bertatik hasitako bidea mugara eramatea lortu da eta zuzendaritza, gazteagoa, parekideagoa eta eskualde osoko ikuspegia biltzen dituen osatu dugu 2019an. Honi, urte hauetan egituratzen ari garen herriz herriko herritar ehuna gehitu behar zaio. Indarberrituta eta odolberrituta sumatzen da Galtzaundi. Ez da gutxi, militantzia krisian omen dagoen garaiotan.

Asko indartu da Galtzaundi benetan eskualdeko Euskara Elkarte izateko asmo irmoa hartu duenetik. Egitasmo zabal, aberats eta eraginkorra dugu eskuarte. Asko zabaldu da gure aliantzen eremua: eskualdeko euskara teknikarien batzordea sustatu eta dinamizatu dugu; UEMArekiko harreman jarraituan sakondu dugu, Tolosaldeko Asanblada Feministarekin lehen lankidetzak urratsak eman dira, Tolosa&Co eta eskualdeko beste merkatarik elkarrekin sektorean euskararen erabilera areagotzeko ekintzak adostu dira, lan-munduan euskarak dagokion tokia irabaz dezan elkarlana abiatu dugu Lanbide Eskole-

tatik hasita; Tolosakoa zen Hezkuntza mahaia, eskualdera zabaltzea lortu da; Aitzol Udal euskarategiarekin eta AEKrekin elkarlanerako bidea urratu nahian ari gara; eta eskualdeko udal guztiekin dugun harremana egonkortu eta sendotzeko lehen urratsak eman dira.

Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren proiektua da, bestalde, azken bi urteotan esku artean izan dugun egitasmorik garrantzitsuenetako bat. Lan handia egin da, eta oso oinarri sendoak finkatu dira etorkizunera begira, bertan parte hartu dugun eragile guztiok aitortu dugun bezala. Mahai gainean utzi dugu eskualdeko hizkuntza politika bideratzeko plangintza berri eta zehatza. Agerian daude adostasunak eta zailtasunak. Eragileon ardura da horiei irtenbidea bilatzea eta urratsak ematea. Guk egingo dugu gure ahalegina.

Honetan guztian, ezinbestekoa izan da erakundearen babesa eta lankidetzak. Tolosa eta Ibarrako udalekin ditugun hitzarmenak, eta GFA-k eta EJ-HPSk emandako diru-laguntzak aipatu behar dira bereziki. Baina baita beste udal batzuekin (Amezketak, Anoeta, Irura, Zizurkil) irekiak ditugun lankidetzak ildoak eta proiektu jakinei denek egin dieten harrera.

Euskararen etorkizunak mugitzen gaitu. Badaukagu zer egin!



## AURKIBIDEA

|                                                            |        |
|------------------------------------------------------------|--------|
| Galtzaundi Euskara Taldea.....                             | 4 or.  |
| Galtzaundikideak.....                                      | 5 or.  |
| Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea eta Lan-taldea..... | 5 or.  |
| Euskararen batzordeak eta sektore mahaiak.....             | 6 or.  |
| Proiektu zehatzak.....                                     | 12 or. |
| Parte hartzeak.....                                        | 31 or. |
| Tolosaldeko Euskararen Mahaia.....                         | 32 or. |



# GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA

## Izaera, ildo nagusiak eta egituraketa

Galtzaundi Euskara Taldea 1991an sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da. Tolosaldean euskara indarberritzea eta euskal kultura sustatzea ditu xede nagusi. 2016an hasi eta 2017an amaitu zen gogoeta estrategikoan, hiru lan-ildo nagusi bereizi ziren: 1. Galtzaundi Euskara Taldearen jarduna eskualde osora zabaltzea, euskaltzaleak antolatzea, eta mugimendua gaztetzea eta feminizatzea; 2. Gizarte aktibazioa eta sektoreen inplikazioa lortzea, eta sinergiak sortzea; eta 3. Gobernantza eta lidertza eredu berri bat sustatzea eta euskalgintza instituzionala eta sozialak osatutako Tolosaldeko Euskararen Mahaia (TEM) eratzeko prozesua bultzatzea.

Hiru ildoetan egin dira aurrerapausoak 2017tik hona. Lehen ildoak, Galtzaundi Euskara Taldea eskualdeko herri guztietara zabaltzea eta eraginkorrak izateko moduan antolatzea eskatu du. Aurreko bi urtetako lanari jarraipena emanez, diseinatutako egituraketa garatu da eta oinarri sendoak jarri dira. Hiru jarduera alorretan, bi zeha-lerrotan eta 4 azpi-eskualdetan antolatu gara:

Jarduera alorrak:

- Aktibazioa

- Jakintza

- Suistapena

Zehar-lerroak:

- Komunikazioa

- Generoa eta aniztasuna

Azpi-eskualdeak: lau batzorde eratu dira eta beren funtzionamendua egonkortu da. Eskualde mailako ekimenak bideratzeko, proiektuak partekatze eta lankidetzak adosteko aukera ematen digu horrek.

- **Alegialdea:** Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta eta Orendain.

- **Anoetaldea-Aiztondo:** Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Larraul eta Zizurkil.

- **Ibarraldea:** Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Leaburu-Txarama, Lizartza eta Orexa

- **Tolosa:** Tolosa.

Lehen hiruetan, nahiz eta herri gehienetako ordezkariak izan, ez da lortu oraindik herri guztietako ordezkariak izatea, eta hori izango da datorren urteko eginkizunetako bat. Batzorde horietako kide batek Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du.



# GALTZAUNDIKIDEAK

## Tolosaldeko euskaltzaleen sarea

Galtzaundi Euskara Taldeak 452 kide zituen 2019ko abenduaren 31n, urte hasieran baino 41 gehiago: 241 emakume eta 211 gizon. Urte hasieran %10ko hazkundera aurreikusi zen eta bete da jarritako helburua. Eskualdeko ia herri guztietan ditugu kideak. Euskaltzale sare hau indartzea eta herri guztietara iristeko ahalegina etengabea izango da.

## BATZAR NAGUSIA, ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA LAN-TALDEA

Irabazi asmorik gabeko elkarte da Galtzaundi Euskara Taldea, eta batzar nagusi hau da gure erabakigune nagusia. Maiatzaren 9an egin zen Anoetako udaletxean, eta, ohi bezala, aurreko urteko ekintzak eta diru-kontuak, 2019ko egitasmoaren ildo nagusiak eta aurrekontua, eta Zuzendaritza Batzorde berria (karguak eta kideak) aurkeztu eta onartu zituzten bertan bildutako 26 bazkidek. Hausnarketarako puntua Jon Sarasuak jarri zigun “Uneko begirada euskalgintzari” hitzaldiarekin.

Mugimendua gaztetzea eta emakumeen parte hartzea indartzea eta, hori, erabakiguneetan islatzea izan zen 2017ko go-goetan jarritako helburu nagusietakoa. Urte eta erdiko prozesua eta gero, aipatu berria dugun Batzar Nagusian gauzatu zen hori. Xabier Saizar presidentearen, Manex Kortajarena idazkariaren, Iñaki Olaetxea diruzainaren eta Xabier Bengoetxea kidearen azken urteotako lana goraiatu eta eskertu zen eta Zuzendaritza Batzordean ordezkatzeko zituztenak hautatu ziren; horretaz gain, azpieskualdeetako ordezkariak gehitu zitzaizkien Zuzendaritza Berria osatuz.

Presidente: Kike Amonarriz

Idazkaria: Maite Asensio

Diruzaina: Ainhoa Elola

Presidente-ordea: Garikoitz Goikoetxea

Alegialdea: Jone Garmendia

Anoetaldea-Aiztondo: Nora Iñurrita

Ibarraldea: Jone Arrospide

Tolosa: Ane Izagirre

Aktibazioa: Mikel Artola

Jakintza: Haritz Azurmendi

Sustapena: Joseba Antxustegietxarte

Galtzaundi K.E.: Xabier Saizar

Koordinatzailea: Jexux Murua



B+ost kidek osatu dute langile profesionalen taldea lanaldi dedikazio eta ardura nagusi (beste alorretan laguntzea ere tokatzen da) desberdinekin:

Imanol Artola: %100eko dedikazioa; aktibazioa eta ikerketak

Amaia Doyague: %50eko dedikazioa; aktibazioa

Igor Agirre: %50 dedikazioa (urritik abendura %100); jakintza eta komunikazioa

Idoia Lahidalga: %100 dedikazioa; sustapena eta administrazioa

Jexux Murua: %100 dedikazioa; koordinazioa eta TEM

# EUSKARAREN BATZORDEAK ETA SEKTORE MAHAIK

---

Tolosaldean euskara indarberritzeko estrategiak garatzen diren guneeetan parte hartzeak aukera ematen digu, besterik beste, eskualde ikuspegia eta dinamika erai- kitzailleak sustatzeko eta adostutako elkarlan proiektuak gauzatzeko. Galtzaundik finkatua daukan bigarren ildo nagusia da berau eta Tolosaldeko eragile eta gizarte alor desberdinak inplikatzeko eta sinergiak lantzea du helburua.

Horiei erantzuten diete azken urte hauetan eratzen, bultzatzen eta dimamizatzen ari garen bilgune ugariak, eta baita besten ekimenez sortu eta gure parte hartzea eskatzen duten besteetako lanek ere.



## Tolosaldeko Euskara Teknikarien Batzordea

Maiztasun finkoarekin elkartuz jardun du bilgune honek Galtzaundi Euskara Taldearen ekimenez. Hemengo koordinatzailea arduratu da taldearen dinamika bermatzeaz, bilera deiak egiteaz, aktak jasotzeaz eta beste. 2017ko udazkenean berrabiatu zenetik, Anoeta, Irura, Ibarra, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo udaletako euskara teknikariak, UEMA-Tolosaldeako teknikaria eta Galtzaundi Euskara Elkarteko koordinatzailea elkartu dira hilean behingo bilkura maiztasunez, eta eskualde mailako ekintzak proposatu eta aktibatze indargunea da.

2019an, Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren enkarguz, TEM 2020-2022 Ekintza Plana lantzea izan da egiteko nagusia apiriletik abendura bitartean. Horrezaz gain, baina, Mintzalaguna proiektua, Euskaraldia, Euskarareen Eguna, eta mahaiko kideek unean unean mahairatutako beste hainbat ekimen koordinatu dira.

Aktiboki parte hartu dugu: proiektuak eta proposamenak mahairatu ditugu, eskualde ikuspegiko proiektuak bultzatu ditugu, eta esku-hartze zuzena izan dugu koordinatzeko eta taxutzeko ardura eman zaigunetan.



## Euskara Batzordeak

Tolosa, Ibarra eta Amasa-Villabonako Udal Batzordeetan hartu da parte.

- Tolosako Euskara eta Hezkuntza Batzordea: Tolosako Udaleko euskara sailak kudeatzen du. Hilean behin elkartu da ekaina bitartean, eta deitu diren bilkura guztietan hartu dugu parte; hortik aurrera, hauteskundeak tarteko, dinamika eten egin da Udalaren berrantolaketa dela eta. Tolosan egiten ari garen lanen berri emateko, proposamen berriak mahairatzeko eta beste kideek proposatutako gaietan ekarpenak egiteko foroa da guretzat.

- Ibarra Euskara Batzordea: Galtzaundi Euskara Taldeari eman zaio taldea kudeatzeko ardura: Udal ordezkariak, Ibarra Euskara eragileen ordezkariak eta Galtzaundiko teknikariak osatzen dute. Hilean behin elkartzen da eta dinamika egonkortua du. Ibarra Euskara plana adostu da bertan eta egitasmoaren garapenaren jarraipena egitea eta neurriak proposatzea dagokio.

- Amasa-Villabonako "Euskararen Ados!": Udaleko euskara sailak kudeatzen du eta, legealdi berriarekin, udazkenean abiatu zuen bere jarduna. Udal ordezkariak eta herriko gizarte eragileen ordezkariak osatzen dute, tartean, Galtzaundi Euskara Taldea. Galtzaundi Euskara Taldea Uxo Elustondok eta aktibazio teknikariak ordezkatzeko dute.



## Hezkuntza Mahaia

Tolosako ikastetxeen bilgune izatetik Tolosaldeko ikastetxeen bilgune izateko urratsak eman dira 2019an. Azken hamarkadetan euskararen indarberritzean eragin handiena izan duen agentea da Hezkuntza Komunitatea (irakasle, ikasle, guraso, langile) eta funtsezkoa da komunitate horrekiko elkarlana.

- Urte amaieran ikastetxe hauetako ordezkariak elkartzen dira mahaian: Tolosako Samaniego Eskola eta Orixe Institutu Publikoa, Laskorain Ikastola eta Herrikide Kristau Eskola; Anoeta eta Irurako Herri Ikastolak; Villabonako Zubimuxu Ikastola eta Erniobea Institutua; Alegiako Aralar Institutua; Ibarako Uzturpe Ikastola; eta Eskola Txikiak (Berritzeguneako koordinatzailearen bidez). Horiei, Tolosaldeko UEMAko teknikaria gehitu zaie aurten. Galtzaundiko teknikaria arduratzen da taldearen koordinazioaz eta dinamizazioaz.

- Eskualdeko ikastetxeak (ikastola eta publikoak) bilgunera erakartzeko lana egin du Galtzaundik 2019an, antolatuak dituzten foro desberdinak baliatuz: Berritzeguneako euskara normalizatzaileen bilkurak, Ulibarri programan murgildutako Tolosaldeko ikastetxeetako ordezkariekin bilkurak, eskualdeko ikastoletako zuzendarien bilkurak etab.

- Jorratu diren gai nagusiak: mahaia funtzionamendua; ikasleen eta guraso euskaldunen hizkuntza eta kultura-kontsumo ohitura azterketa (Galtzaundik lehena eta Siadeco-k bigarrena); UEMAren Hezkuntza proiektua “Hedatu” eta Galtzaundiren “Eusle”rekin proiektu bateratua eratu da (DBHko ikasleen 2019/20 ikasturteko egitasmoetan txertatu da); helduak euskalduntzeko euskarategien eskaintza gurasoei; Tolosaldeko Euskararen Mahaia Plangintza 2020-2022ren kontrastea.





## Helduen Euskalduntze-Alfabetatze Mahaia

Helduen euskalduntze-alfabetatze zereginean eskualdean diharduten agenteen bilgunea eratzeko urratsak eman dira.

Hasteko, 2019an, Aitzol euskaltegiko zuzendaria eta AEK-Tolosaldeko zuzendariekin hiru bilera egin dira helduen euskalduntzean eta alfabetatzean Tolosaldean bizi duen egoeraren inpresioak trukatu, diagnosis partekatu, elkarlanerako aukerak testatu eta aurrera begirako lehen helburuak jartzeko:

- Mintzalagun 2018-2019ren balorazioak partekatu dira eta neurri osagarriak adostu dira 2019-2020ko deialdia prestatzeko.
- Peñaskal-Markinako esperientzia ezagutu dugu: Aitzol, AEK eta Peñaskal Oinarrizko Lanbide Eskolako zuzendaritzako kideen bisita antolatu da. <https://www.galtzaundi.eus/markinako-penascal-fundaziora-bisita/>. Helburua: Tolosako Peñaskal eta Aitzol euskaltegiaren arteko lankidetzak aukerak arakatzea euskara ikasketa Peñaskalgo ikasketa prozesuan txertatzeko.
- Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren Plangintza 2020-2022 kontrastea egin da.
- Aurrematrikula kanpaina bateratua adostu da, Hezkuntza Mahaiarekin elkarlanean, ikastetxeen bidez gurasoen artean egiteko.



## Kirol Entitateen Mahaia

Tolosako Kirol entitateen jardunaren behaketa-lan garrantzitsua egin zen 2018an. Haren ondorioak sailkatu sailkatu dira eta horiek Tolosako kirol taldeei aurkezteko bilkurak antolatu dira. Biler horietan, 2018an Tolosako kirol entitateetan egindako azterketaren ondorioak aurkeztu ez ezik, beste herrietako esperientzia arrakastatsuak aztertu eta neurri gauzagarriak zerrendatu dira.

## Lan Munduko Mahaia

Enpresetan euskararen erabilera sustatzeko eskualde mailako gogoeta gunean (jabeak, langileak, sindikatuak, lanbide heziketa...), sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta lan munduan euskarak lekua irabazteko estrategiak landu eta garatzeko urratsak eman dira. Lanbide Heziketa Eskolak dira zentzu honetan aktiboenak eta hauetan ardatzen da Galtzaundik koordinatu eta dinamizatzen duen Mahaia.

- Partaideak: Tolosaldea Lanbide Heziketa Eskola, Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastola, Fraisoro Nekazaritza Eskola, Don Bosko Lanbide Heziketa Eskola eta LANEKI Elkarteak.
- Urteko ekimen nagusiak: Lan Praktikak euskaraz egiteko baldintzak sortzeko proiektua: Lan eta Hezi euskaraz. Proiektuaren ezaugarriak eta helburuak adostu dira eta berau praktikara eramateko laguntza bereziak lortu dira.
- Lanbide Eskolen Azoka: bilgune honetatik sortutako ekimen honen laugarren ekitaldia antolatu da (Tolosa, apirilak 5 eta 6) eta laguntzaile izan gaitu.

<https://www.galtzaundi.eus/ikasleen-praktikaldiak-euskaraz-izatea-bermatzeko-hezi-eta-lan-proiektua-garatu-da/>



## Merkataritza Mahaia

Hizkuntzaren erabilera eta ikusgarritasuna indartzeko gune estrategikoa da 3. sektorea. Sektore horretako jendea euskararen normalkuntzan engaiatzeko hainbat ekintza burutu dira. Tolosa&Co eta eskualdeko merkatari elkartearen dinamizatzailerekin, ekintzak burutu diren herrietako euskara teknikariek eta UEMArekin koordinatu eta diseinatu dira ekimenak. Nagusiki:

- Tolosa, Ibarra eta Villabonako saltokietan euskararen erabilpena eta presentzia areagotzeko proiektuak adostu dira.
- Tolosa, Amasa-Villabona eta Ibarako merkatariak euskararen erabilpena areagotzeko informazioa, birtutekoak eta baliabideak eskaini zaizkie: hizkuntza paisaia euskaratzeko materialak (arlokako hiztegiak eta kartelak) Udaletako Hizkuntza zerbitzuen eskaintzen katalogoak, itzulpen zerbitzuak eta aholkularitza zuzena. 800 saltoki baino gehiago bisitatu dira eta emaitza esanguratsuak lortu dira.





# AHALDUNTZE LURRAK EREITEN

## euskaldunak ahalduntzeko proposamenaren gakoak, Tolosaldean

Tolosaldeko biztanleen %80a gai da euskara ulertzeko. Hogeitabost urtez behekoen artean unibertsalizazioaren muga gaude. Halere, eza gutza eta erabilearen arteko arrakala handia da, handiegia, eta badira arnagune izan diren herrietan arduraz jokatzeko eskatzen duten zantzuak. Horregatik, garrantzia handia ematen dio Galtzaundik herritarren kontzientziatzeko lanari, ahalduntze lanari. Hor kokatzen da eskualdeko herrietan antolatu den EUSKARAZ BIZI AHAL GARA! hitzaldi zikloa, 2018an antolatutako “Euskaraz bizi a(ha)l gara?” zikloari jarraipena eman dioena.

Hiztunon ahalduntze bidean eragina duten gakoak azaleratzea eta bereizten saiatzea izan da ekimen honen beste helburu garrantzitsua. Horregatik, saio parte-hartzaileak izan dira, parte-hartzaileek beren herrietan euskarak bizi duen egoerez duten pertzepzioak bildu dira, eta bere portaeretan eragina duten gakoak identifikatu dira. Hau guztia dokumentatu eta interpretatu da, eta ondorioak atera dira.

Jakintza batzordeko kideek, Aktibazio batzordeko kideekin koordinatuta, diseinatu dute jardunaldia eta hiztunon hizkuntza ohituretan eragiten duten faktoreen inguruko hausnarketa eragitea izan da helburua. Bide batez, 2020ko Euskaraldia, Galtzaundi Euskara Taldearen proiektua eta Tolosaldeko Euskararen Mahairen berri emateko baliatu dira.

Hogehitalau saio antolatu dira urriaren hasieratik (Tolosan, urriaren 3an) urtearen amaiera bitartean 23 udalerrietan. Saioetako aurkezte eta dinamizatze lanak zuzendaritzako kide eta teknikoen artean egin dira.

<https://www.youtube.com/watch?v=SQ9RhslfWqQ>





# SOZIOLINGUISTIKA ETA GALTZAUNDIKIDEEN FORMAKUNTZA

Galtzaundiko oinarri sozialak dituen beharrak asetzeko, beharrezkoa ikusi da lehenik eta behin Galtzaundiko zuzendaritza eta azpibatzorde desberdinetan ari direnen formazioaz arduratzea. Asmo horrekin antolatu zen Ikaztegietan, ekainaren 8an, Galtzaundiko Euskara Taldearen zuzendaritza eta lan-talde desberdinetan ari direnentzako mintegia. Ezaugarri hauek izan ditu:

- Mintegiaren diseinua: Xabier Bengoetxea, Mikel Ozaita, Haritz Azurmendi eta Garikoitz Goikoetxea arduratu dira.
- Deialdiarekin batera irakurgaiak eta aurrelanketarako galderak bideratu dira.
- Xabier Bengoetxeak eman du ikastaroa.
- Eztabaida mahaia antolatu eta dinamizatu dira eta ondorioak kontrastatu dira.
- Amaitzeko, asebetetze maila neurtu da inkesta bidez, eta zein gai sakontzea gustatuko litzaiekeen galdetu zaie partaideei.

<https://www.galtzaundi.eus/formazio-saioa-jaso-dute-eskualdeko-euskaltzaleek/>



# E365E ± EUSKARALDIA 2019-2020

## eskualdeko ekimena diseinatu eta antolaketa oinarria jarri

Euskarak 365 Egun Galtzaundi Euskara Taldeak bere egindako helburua da. Marko honetan, gizartea aktibatu eta hizkuntza ohituretan eragiteko EJ-HPS eta Topaguneak sustatutako EUSKARALDIA ekimenaren eragile aktiboa izan gara, eta eskualdeko herri guztietan euskararen erabilera areagotzeko ekintza esanguratsuak eta bateratuak sustatu ditugu:

2018an antolatutako 11 egun euskaraz ekimenaren ikerketen ondorioak aztertu dira. Eskualdean izandako eraginaren eta partaideen esperientziatik abiatutako ondorioak atera dira.

Euskaltzaleen Topagunearen baitan eratutako E365E Batzordean parte hartu dugu eta Euskaraldia 2020 prestatzeko urratsak eman dira antolatzaile nagusiekin koordinatuta.

Eskualdeko 28 herriak Euskaraldian parte hartzea da jarri den jomuga, eta lehen bilerak egin dira herrietako euskaltzale eta udal ordezkariekin, ekimenaren xehetasunak eta helburu berriak azaldu eta urrats hori ematea bultzatzeko.



# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## Hitzolariak

Amasa-Villabonako Berdura plazan aurkeztu zen azaroaren 20an Euskararen Nazioarteko Egunean Tolosaldeko herrietan gauzatzeko ekintza bateratua: Hitzolariak!. Eskualdeko hainbat herrietako ordezkariekin batera aurkeztu zen egitasmoa. Amasa Villabonako alkate Beatriz Unzué eta Galtzaundiko kide Imanol Artola eta Uxoá Elustondo izan ziren bozeramaleak.

Duela bi urteko Euskararen Nazioarteko Egunerako eskualdeko ekintza bateratua proposatu zuen Galtzaundi Euskara Taldeak. 28 herrien artean 'Euskarak 365 egun!!' mosaikoa egin zen orduan. Pasa den urtean, Euskaraldiaren azken eguna zela baliatuz, ariketaren inguruan hausnartzeko baliatu zen Euskararen Eguna herriz herri.

Herritarrak eta hizkuntza erdigunean jartzea proposatu zen 2019an. Horretarako, euskarak ematen di-tuen aukerekin eta zirrikituekin jolasteko ariketa egitea da proposatu zena: "Hitzolariak", herrietako hitz bereziak, esanahi berria har dezaketen hitzak edota hitz berriak sortzeko ariketa eta aldi berean jolasa. Ezaugarriak:

- Gure herrian edo sektore jakin batzuetan erabiltzen diren hitzak zabaldu eta azaltzea.
- Lehendik ere bazeuden hitzak baina orain esanahi berria izan dezaketenak plazaratzea.
- Hitzen esanahiarekin edo sonoritatearekin jolastuz, hitz berriak sortzea.

Arrakastatsua izan zen ekimena. Tolosaldeko 24 herritan burutu zen, 1.000 hitz baino gehiago bildu ziren (zaharrak, esanahi berrituak edo hizperriak) eskualdeko herritarrei esker eta azkenean, 850 hitzez osatutako hiztegi digitala osatu eta argitaratu genuen.

<https://www.galtzaundi.eus/hitzolariak-martxan-dira-euskararen-egunean-hitzeekin-jolasteko/>

<https://www.galtzaundi.eus/euskaren-nazioarteko-eguneko-egitaraua-herriz-herri/>

<https://www.galtzaundi.eus/tolosaldeko-hitzolarien-hiztegia-ikusgai/>



# GAZTEEN HITZARTZEA

## Tolosaldea

Galtzaundik Tolosaldeko batxilergoko eta erdi mailako ikasleen kultur kontsumo ohituren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin du. Garrantzi handia eman zaio ikasleen adostasunari eta parte-hartzeari prozedura osoan eta beraiekin elkarlanean egin dira urrats guztiak:

- Eskoletako ikasleen batzordearekin adostu dira ekimenak.
- Ekimena diseinatu da Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoko ikasle Josu Artutxarekin eta Iñigo Otaegirekin. Gardu amaierako proiektua egiteko baliatu dute lortutako materiala.
- Batxiler eta lanbide heziketako erdi mailako ikasleen kontsumo ohituren inguruko informazio bilketa egin da on-line betetzeko inkesta bidez..
- Bederatzi eztabaida-mahai antolatu dira batxilergoko ikastetxeetan, bakoitzean hiruna: telebistari eta ikus-entzunezkoei buruzkoa, musikari buruzkoa,, eta albistegiei buruzkoa.
- Ateratako ondorioekin, interpelatutako gela bakoitzeko bina gazterekin gaiari buruzko mahai-inguru irekia antolatu da ekainaren 12an, Tolosako Kultur Etxean. Mahaingurua ikastetxeko ikasleek eskaini zuten: Ane Elordi eta Maider Lastra (Laskorain), Iñigo Goikoetxea (Orixe) eta Ane Antxustegietxarte eta Maialen Nuñez (Herrikide), Iñigo Otaegi eta Josu Artutxak gidatuta.

<https://www.youtube.com/watch?list=PLNlwPWRCa2egldDZCOjUaitThzndHUOeL&v=lpUb74cfYIO>





# MINTZALAGUNA



Euskara ikasten ari direnei euskara praktikatzeko lagun-arteko espazioa eskaintzea da honen helburua, euskararen erabileran trebatu daitezzen: lotsak eta beldurrak gainditu eta esperientzia atsegina edukitzea da lortu nahi dena. Tolosako Mintzalaguna taldeak antolatu eta koordinatu ditu Galtzaundi Euskara Elkarateak, eskualdeko antolatzen direnekiko hartu-emanaz zainduz. Xehetasun batzuk:

- Tolosan, 2018-19 ekitaldian 54 bidelari aritu dira 9 taldetan banatuta urtarrrila-ekaina bitarte astero-astero euskara praktikatzeko. 2019-20 ekitaldian, 10 talde, 9 bidelagun eta 52 bidelari.

- 9 talde horietako bidelagunei motibazio saioa eskaini zaie, egitasmoaren inguruko azalpen teorikoak eta EHko beste herrietan dauden taldeen eta Topaguneko kanpainaren berri emanaz.

- 4 ekintza osagarri egin dira: apirilaren 10ean eta maiatzaren 16an euskal kantuen kantu saio irakurri bana egin da; maiatzaren 25ean Zizurkil koka-tuta dagoen Irizibargo karobiara ibilaldi gidatua osatu da; ekainaren 19an ikasturte amaierako merienda egin da eta Mintzalaguna programan jarraitzea gonbidatu dira bertaratutakoak.

Horretaz gain, Tolosaldeko Mintzalagun talde guztiak harremanetan jartze-ko saiakera egin da, eta ikasturte berriko plangintza bateratua adostu da eskualdeko Euskara Zerbitzu, UEMA eta AEK-ko teknikariekiko gauzatutako bileretan. Galtzaundik deitu eta koordinatu ditu.

- 2019-2020 ekitaldia prestatu da, komunikazio kanpaina diseinatu eta materialak sortu dira.

- 2019-2020 ekitaldiaren jendaurreko aurkezpena eta deialdia egi da Zizurkil, Villabona, Anoeta, Irura, Altzo, Alkiza eta Tolosako eskaintzaren berri emanaz.

- Tolosaldeko aipatu herrietan, 27 taldetan banatuta 100 lagunetik gora hasi dira 2019-2020 ikasturteko Mintzalagun egitasmoan.

<https://www.galtzaundi.eus/dagoeneko-hasi-dute-ikasturtea-mintzalagun-talde-guztiek/>



# IRAKURLE TALDEA

Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta irakurtzeko ohitura dutenei euskarazko literaturaz hitz egiteko espazioa eskaintzea du helburua. Tolosako Kultur Etxean antolatzen dira saio hauek Yurre Ugartek gidatuta; Yurre arduratu da gaiak proposatzeaz – oso kontuan izan du beti gaien aniztasuna eta genero irizpidea – eta bilkurak gidatzeaz. Hamar saio antolatu dira irailetik ekainera bitartean, hilean bat, eta horietatik hirutan irakurgai den liburuaren idazlea bertan izan da. Saio bakoitzera 12 lagun inguru bildu da; idazlea bertan den saioetan irakurle gehiago bildu da beti. Xehetasunak:


- Datak eta irakurgaiak: urtarrilaren 23an 'Maitalea,' otsailaren 20an 'Azukrea belazeetan'; martxoaren 20an 'Goseak janak'; apirilaren 17an 'Dolloway andrea'; maiatzaren 22an 'Fakirraren ahotsa'; ekainaren 12an 'Gerezi garaia'; irailaren 25ean 'Gauza baten ametsa'; urriaren 23an 'Neguko argiak'; azaroaren 20ean 'Proleterka'; abenduaren 18an 'Basa'.

- Idazleak parte hartu duten saioak: otsailaren 20an Inazio Mujikak 'Azukrea belazeetan' liburua eskuetan; maiatzaren 22an Harkaitz Canok 'Fakirraren ahotsa' liburua izan zuen mintzagai; eta abenduaren 18an Miren Amuriza 'Basa' liburuaz aritu zen.

<https://www.galtzaundi.eus/bideoa-inazio-mujika-iraola-irakurle-taldean/>

<https://www.galtzaundi.eus/harkaitz-cano-izan-da-irakurle-taldean/>

<https://www.galtzaundi.eus/miren-amuriza-izan-da-irakurle-taldean/>



## CASTILLO SUAREZ Irakurle Taldean

Eguna: otsailak 19, asteazkena  
Ordua: 19:00  
Lekua: Tolosako Kultur Etxea  
Dinamizatzailea: Yurre Ugarte  
Irakurgaiak: Irautera



### DATOZEN SAIOAK:

JEKYLL DOKTOREAREN  
ETA HYDE JAUNAREN  
KASU BITXIA  
Marboak 16



DEKLARATZEKORIK EZ  
Idazlearekin  
Apiriak 22



# SORMENETIK



Tolosako larunbateko azoka, kultura eta euskal sorkuntza saretzea du helburu. Euskal kulturgintzaz hausnartzeko eta kultur esparru ezberdinetako sortzaileak, herritarrek eta euskaltzaleak batzeko gunea da hau. Bi ekitaldi antolatu dira:

- Ekainaren 1ean burutu da saioetako bat. Gonbidatu nagusia Garbiñe Ubeda idazle eta kazetari ibartarra izan da. Yurre Ugartek elkarrizketatu du. Tarteetan, Jone Gorostartzu olerkari berastegiarrak bere azken olerki liburuaren zatiak irakurri ditu Hodei Yañez biolin-joleak musikaz lagunduta. Garbiñe Ubeda bere kazeraritzaren esperientziaren, idazle esperientziaren eta Idazle Elkarteko esperientziaren aritu da, euskal kulturaz eta euskalgintzaz hausnartuz eta esparru horietako desafioak mahairatuz.
- Urriaren 5ean, Tio Teronen Semeak ikuskizunaren egileak izan dira protagonista: Aritz Salamanca, Gorka Daguerresar eta Antton Fernandez. Elkarrizketa bideratzen Oihana Iguaran Barandiaran aritu da, bertsolaria ez ezik, Oinkari dantza taldean ere aritutakoa. Lauak ohol-tza gainean, euskal dantzaren ibilbidea, Tio Teronen Semeak proposamen ausarta eta hainbat gertaera dibertigarri ere izan dituzte ahotan. Zuzeneko ikuskizuna ere izan da baina, Tio Teronen Semeak estilora, publikoaren inplikazioarekin: dantza pauso batzuk erakutsi dizkiete beraiekin batera dantza egitera animatu direnei eta, gainerakoei 5 minutuko dantza ikuskizuna eskaini diete.

Emanaldien ondoren azokako produktuez osatutako hamaiketakoa eskaini da. Saio hauek Tolosako Arraun Klubarekin, Box.a-rekin eta Tolomendirekin dugun elkarlana sendotzeko eginkizuna ere betetzen dute.

<https://www.galtzaundi.eus/sormenari-buruz-idazlearen-ikuspegitik/>





## IBARRAKO OSTEGUNAK

Euskal sortzaile eta pentsalariei tokia egitea, beren sorkuntza lanen ataria izatea eta euskal kultura hedatzeko eta honen kontsumoa sustatzeko gune berri bat irekitzea proposatu da Ibarren. Edozein arte adierazpide edo gogoetagairi lekua egitea izan du helburua toki berezia eskainiz eskualdeko sortzaileei.

Egitaraua, Ibarako Sendi Ekintza Kultur Elkartea eta Ibarako Hauspoa taldeko kideekin adostuta erabaki da. Galtzaundi Tabernan kokatu dira azken saio ez beste guztiak, hileroko azken ostegunean. Eskaintzaren aniztasuna zaindu da (adin, sexu, adierazpena), protagonisten parekidetasuna bermatzeko ahalegina egin da eta eskualdeko sortzaileen parte hartzea zaindu da bereziki. Saio hauek antolatu dira:

- Urtarrilaren 31n, Nora Salboxen hitzaldia. Gaia: Hezkuntza: ikasleen kezak hizpide. Uzturpe ikastolako ikasleekin lan berezia egin da aurretik.
- Otsailaren 21ean, Aitzpea Leizaola. Hitzaldia. Gaia: Mozorroaz haratago. Inauteriak Euskal Herrian gaur egun. <https://www.galtzaundi.eus/ehko-inauteriak-izan-ditugu-hizpide/>
- Martxoaren 28an, Joxemari Karrera ipuinkontalaria. Haurrak eta gurasoak elkartu ziren batik bat. <https://www.galtzaundi.eus/karrereren-ipuinak-txikien-eta-nagusien-gozagarri/>
- Apirilaren 25ean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako girotze saioa. Bertsolariak: Maialen Akizu, Oier Iurramendi, Eli Pagola, Beñat Mujika, Imanol Irazustabarrena eta Txomin Azpiroz. <https://www.galtzaundi.eus/tabernako-bertso-saioko-irudiak/>
- Maiatzaren 30ean, Asier Kidam magoa. Haur eta helduei zuzendutako ekimena. <https://www.galtzaundi.eus/gazteek-zein-helduek-gozatu-dute-asier-kidamen-magiarekin/>
- Ekainaren 27an, Malen Zeberio eta Maitane Iruin abeslari gazteen kantaldia. Tolosar gazte hauek kantagintzan ibilbidea hasi berria dute eta honelakoak ezagutzera eman eta plaza eskaintzea du ekimenak helburua. <https://www.galtzaundi.eus/kontzertu-arrakastatsua-eskaini-dute-malento-zeberio-eta-maitane-iruienek/>
- Irailaren 26an, Asisko Urmeneta komikilaria: "Karrika-Turistarenak" irudi-gilearen kontakizunak. Bere komikilari ibilbidea eta Euskal Herriaren uztarketa egin du Kike Amonarrizek bideratuta, hitz eta marrazki. <https://www.galtzaundi.eus/hitzen-eta-irudien-bitartez-mintzatu-da-asisko-urmeneta/>
- Urriaren 31ean, Pettiren kontzertua Sendi-ekintza elkartearen. Beratarrak amerikar sustraiak dituen rocka eskaini du.



## XXII. IBARRA GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETA

Sorkuntza eta euskara uztartuz, gazteen artean euskararen erabilera sustatzea, gazteek grafismoa euskaraz lantzea eta komikigintza afizio edo ofizio dutenei euren lanak kaleratzeko eta ikusgarri egiteko plaza eskaintzea du helburu.

Komiki lehiaketa hau adin maila txikietatik (eskualdeko ikastetxeekin elkarlanean) helduetaraino zabaltzen da. Helduen mailakoa irekia da. Lan berezia egiten da Tolosaldeko ikastetxeekin. Guztietan aurkeztu dira lehiaketaren nondik norako nagusiak, dagoen haietan arte tailerreko irakasleei, eta gainerakoetan ikasketa buru eta zuzendariari. Uzturpe ikastolako DBH 2ko ikasleek Komikigintza tailerra jaso dute Iñaki Martiarena *Mattinen* eskutik.

III Lan aurkeztu dira: 12 urte azpiko sailean 67; 13-16 urte bitarteko sailean 39; eta 17 urtetik gorako sailean 5.

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 13an egin da Ibarako Kultur Etxean. Ekitaldian Mai Gorostiaga Clownak eta Dorleta Kortazar ipuin kontalariak hartu dute parte.

Ekimena gizarteratzeko eta bere emaitzak ezagutarazteko ahalegina egin da: aurreko urteetako lan sarituei ikusgarritasuna eman zaie Ibarako Kultur Etxean eta Galtzaundi tabernan iraila-urrietan; gero, azaroan, herriko 10 dendetako erakuslehiotara eraman dira. Oso harrera ona izan du ekimenak.



# MERKATARITZAN EUSKARA

Herri baten parte da tokiko merkataritza. Eguneko erosketak egiteko gune izatetik harago, herritarren arteko harremanetarako gune dira. Saltzaileak, hornitzaileak eta erosleak herriaren parte dira eta, beraz, euskaldunen komunitatea trinkotzeko landu beharreko guneak dira.

Egunean eguneko ahozko nahiz idatzizko komunikazioaren bitartez, besteak beste, pertsuasioa eta fidelizazioa, landu behar dituzten guneak ere badira. Hizkuntzak, beraz, komunikaziorako funtzio zehatzak betetzen ditu tokiko merkataritzan. Tokiko merkataritzako ahozko nahiz idatzizko komunikazioak, komunikazio horien hartzaileak, hizkuntza batean edo bestean egitera bultzatzen dituzte. Erraz egiten da euskaraz erakuslehoan mezuak euskaraz ikusiz gero, saltzailea eta aurreko eroslea euskaraz ari direla entzunez gero. Gehiago kostako zaigu berriz euskaraz egitea batean zein bestean gaztelera baino ikusten edo entzuten ez badugu.

Hori lortzeko lanean ari gara azken urtetan. 2019an, Tolosan, Ibarra eta Amasa-Villabonan. Herri horietako Udalak izan ditugu babesle eta eskualdeko Merkataritza Elkarteak (Tolosa&Co, Oria), euskara zerbitzuak eta UEMA lankide. Xehetasunak:

- Tolosa, Ibarra eta Amasa-Vilabonako saltoki eta ostatu guztiak bisitatu dira hizkuntza paisaian eta bezeroarekiko hizkuntza harreran eragiteko. Tratua zuzenekoa izan da eta Udalerrri horietako zerbitzu katalogoak eskaini dira eta behar dituzten baliabideak eskura jarri dira.
- Saltokietako langileen hizkuntza gaitasuna neurtu da.
- Denera 651 saltoki bisitatu dira eta 345 saltokik egin dute eskaeraren bat.
- Tolosan, 464 saltoki landu dira.
- Ibarra, 69 saltoki landu dira.
- Amasa-Villabonan 118 saltoki landu dira.

<https://www.galtzaundi.eus/tolosako-saltokietako-langile-ia-ia-guztiak-ulertzen-dute-euskara/>





## ANOETAKO ETA IRURAKO LANTEGIETAKO AZTERKETA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Irura eta Anoetako Udalek eskatuta azken urtetan gauzatzen ari garen proiektua da, Urtero enpresa multzo bat adosten da Udal horietako euskara arduradunekin eta Galtzaundi arduratzen da ekimena burutzeaz. Helburua, enpresen hizkuntza paisaia euskalduntzea eta beren eguneroko harremanetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskararen erabilera areagotzeko urratsak ematen laguntzea.

- Ahozko zein idatziko harremanetan euskararen erabilpena areagotzeko konpromisoak proposatu dira hautatutako lantegietan.
- Anoetako Tarte, Lugaritz eta First Stop SEAT, Aukeran sukaldeak, Gurutze autoak, IBK bizikletak, Peru S.L., Autogarriketa eta Lanbroa Gourmet, Maquinados y Montajes eta Jamai Technical Services.
- Irurako Egimendi Nekazal tresnak, Irudi Karrozeria, Aztaka 4x4 tailerrak, Urak Teknika Ebazpideak, Gazpi Irura Motor, Laskibar Tailerrak, Ventanas Ventaki S.L. eta Desacristal S.L.



## HEZI ETA LAN

### praktikak euskaraz, 7 esperientzia

Lan Munduko Mahaian garatu eta Eusko Jaurlaritzak berariaz babestutako proiektu pilotua izan da hau. Eskualdeko Lanbide Heziketa eskoletako ikasleek – euskaraz burutzen dituzte ikasketak - eskualdeko enpresetan beren praktikaldia euskaraz egin ahal izatea bermatzeko proiektua jarri da martxan ikasturte honetan. Xehetasunak:

- Praktikak egitera doazen ikasleek praktika horiek euskaraz egin ahal izatea bermatzeko beharrezkoak diren pausoak zehaztu dira.
- Metodologia, helburuak eta ebaluazio adierazleak eta enpresetan egin beharreko lanketa osoa zehaztu da (beste esperientziak aztertuz eta Lanekiren aholkularitzarekin).
- Zazpi enpresa aukeratu dira proiektu pilotuan parte hartzeko: Refractarios Kelsen S.A., Gureak enpresa taldea, Sutargi S.A.L enplegurako zentro berezia, Tarte Koop. Elk., Otsabio S.A., Feralco Iberia eta Iratze lorezaintzak.
- Enpresekin banan banako lana egin da, egoera ebaluazioa egin da, baldintza egokiak sortzeko neurri zuzentzaileak proposatu zaizkie eta jarraipena egin da.

<https://www.galtzaundi.eus/ikasleen-praktikaldiak-euskaraz-izatea-bermatzeko-hezi-eta-lan-proiektua-garatu-da/>





# EUSKARALDIA 2018

## ikerketa lana

2018ko Euskaraldiako 11 egun euskaraz ekimenak utzitako ondorioak ikertu dira. Antolatzaile nagusiek eskatuta Soziolinguistika Klusterrak egingo duen ikerketa kuantitatiboari, eskualdeko udalek eskatuta, bertako ikerketa kualitatiboa gehitu zaio. Lan hau oso baliagarria izan da “Ahalduntze Lurrak Ereiten” ekimena gorpuzteko.

### Urratsak:

- Eskualdeko ikerketa kauntitatiboa egiteko eskatu zaio SLK-ri eta datuak biltzeko laguntza eskaini zaio.
- 2018ko abenduan, Euskararen Nazioarteko Egunaren baitan, Euskaraldia parte hartu zutenen iritzi bilketa egin zen (300 galdeketa eta 5 eztabaida mahai); iritzi horiek prozesatu, sailkatu eta ondorioak atera dira.
- Bost eztabaida mahai antolatu dira Euskaraldian parte hartu zuten kideekin: adin tarteak, sexua, Ahobizi eta Belarriprest rola kontuan izanik, soslai desberdineko mahaiak izan dira.
- Eztabaida Mahaietako iritzi bildumak osaturik, aurreko abenduan eta eztabaida mahai hauetan bildutako iritziak kontrastatu eta ondorio kualitatibo nagusiak formulatu eta zerrendatu dira.
- SLK-k emaitzekin (uztailaren 30ean jaso da SLK-ren eskualdeko ikerketa lana) kontrastatu eta txosten bateratu idatzi da.
- Herrietako antolatzaileei eta herritarrei oro har aurkezteko moduan antolatu da.





## BEHAKETAK ETA DIAGNOSTIKO PLANGINTZA

Galtzaundi Euskara Taldeari, bere jarduna erabakitzeko orduan nahitaezko zaizkio eskualdeko egoera soziolinguistikoaren analisiak. Lan hauek burutu dira:

Merkataritza eta saltokien behaketa lanak:

- Tolosa, Ibarako eta Villabonako komertzio guztietako hizkuntza paisaia behatu da: Tolosan 464 saltoki, Ibaran 69 eta Amasa-Villabonan 118.
- Behaketaren ondorio txostenak idatzi eta aurkeztu dira.

Kale erabilera neurketak:

- Tolosan: 2018ko abenduan egindako kale erabilera neurketaren bildutako datuak prozesatu dira eta ondorio txostena aurkeztu da Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordean. 2019ko landa lana diseinatu eta entzuketa lana egin da (abenduren 11ean, 14ean eta 15ena); 8.647 hitzunen arteko 3.246 elkarrizketa entzun dira.

- Ibaran: 2019ko landa lana diseinatu eta entzuketa lana egin da, datuak biltzeko entzuketa lana egin da (ekainaren 15etik 21era) eta 4.507 hitzunen arteko 1.671 elkarrizketa entzun dira. Txostena idatzi da eta Ibarako Udaleko ordezkariari (alkate orde, euskara zinegotzia eta euskara zerbitzu burua) aurkeztu zaie.

# EUSKARA ETA FEMINISMOA

## bidegurutzea elkargune

Euskara eta gizarteko beste eremuetako ikuspegiak trukatu eta elkar aberasteko guneak proposatzen ditu egitasmo honek. 2019an Tolosaldeko Asanblada Feminista (TEF) eta Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Taldearen (GET) artean diseinatu dugu lehen zikloa, Lorea Agirre antropologoa eta kazetariaren laguntzarekin. Hitzaldi zikloaren gaia: **Euskara eta feminismoa: bidegurutzea elkargune**.

Lau hitzaldik eta amaiera ekitaldiak - mahaingurua eta sormen saioa - osatu dute zikloa, eta eskualdeko herri desberdinetan burutu dira urriaren 15etik azaroaren 5a bitartean. Aldibereko itzulpen zerbitzua jarri da.

- EUSKALTZALETASUNA ETA FEMINISMOA AHALDUNTZEKO ELKARGUNEA. Idurre Eskisabel Larrañaga eta Lorea Agirre Dorronsoro. Urriak 15, 18:30, TOLOSA. Udaletxeko pleno aretoa.
- EUSKARA ETA GENEROA GURUTZATZEN DIRENEAN. Hizlaria: Jaime Altuna Ramirez. Urriak 22, 18:30, VILLABONA. Mintzola-Subijana Etxea.
- EUSKARA ETA EMAKUMEAK, GENEALOGIA/BEGIRADA FEMINISTA BAT. Hizlaria: Saioa Iraola Urkiola. Urriak 29, 18:30, IBARRA. Kultur Etxea.
- GENEROA ETA HIZKUNTZEN ELKARGUNEA ERAIKITZEN. Hizlaria: Itziar Gandarias Goikoetxea. Azaroak 5, 18:30, AMEZKETA. Kultur Etxea.
- MUGIMENDU FEMINISTA ETA HIZKUNTZA PRAKTIKAK (mahaingurua). Parte hartzaileak: Petra Elser, Idurre Eskisabel, Tarana Karim eta Edurne Aranbarri. Moderatzailea: Jone Amonarriz. Sormen saioa: Uxue Alberdi eta Oihana Iguaran. Azaroak 13, 18:30, TOLOSA. Kultur Etxea.

<https://www.galtzaundi.eus/mugimendu-feministaren-eta-euskaltzalearen-arteko-elkarguneetaz-gogoetatzeko-hitzaldi-zikloa/>







## HAINBAT LANKIDETZA ETA EKIMENEN SUSTAPENA

Euskara indarberritzeko edo berreskuratzeko ahaleginean ari diren beste eragile batzuk antolatzen dituzten ekimenei laguntzea da lan-ildo honen asmoa. Garrantzitsua iruditzen zaizkigu lankidetzak ekintza hauek euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko eta herritarren artean kontzientzia hori pizteko. Hauetan hartu da parte:

- Tolosalderako autobusak HERRI URRATS, NAFARROA OINEZ eta KILOMETROAK ekitaldietara, ARABA EUSKARAZ eta IBILALDIA jaietara ere eskaini dira, baina ez dira osatu.
- Euskararen aldeko otarrak banatu: ERRIGORA (bi banaketa; udaberrian eta udazkenean) eta IKASKOLI (banaketa bat udazkenean).
- 2019ko KORRIKAREN eskualdeko antolaketa taldeetan parte hartu da eta ekimenaren materiala saltzeko Tolosaldeko puntu finkoa izan da Galtzaundiren bulegoa.




# TOLOSALDEKO ATARIA

Galtzaundi aldizkaria, Tolosaldeko Hitza eta Txolarren irratia baten bateratzeak 2013ko urrian abiatutako proiektua da hau. Horretarako sortu zen Tolosaldeko Komunikazio Taldea E-M.-ko partaide da Galtzaundi Euskara Taldea eta, beraz, honen ardurako egitasmo garrantzitsuenetakoa dela esan behar da.

Proiektu multimedia da Tolosaldeko Ataria: harpideei etxera banatzen zaien Tolosaldeko Atariak (asteartetik ostegunera argitaratzen den egunkaria eta ostiralean argitaratzen den astekaria), [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus) interneteko atariak, eta 24 orduz emititzen duen Ataria irratiak osatzen dute eskaintza.

Audientziei dagokienez: papereko edizioak, 2.130 harpide ditu eta 11.000 inguru irakurle esleitzen dizkio CIES-ek; egonkor mantentzen da. [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)-en audientzia gora doa urtetik urtera: 310.302 (+%12,56) erabiltzailek 1.644.527 (+%24,18) bisita egin zituzten 2019an eta mugimendu handia dute gure sare sozialek; audientzia hori Atariaren bideragarritasunean partaide izatea nola lortu da desafioa. Irratiak uhin bidez duen audientzia ezin dugu neurtu, baina internetez bidezko audientziak gorakako joera erakusten digu; audientzia gutxien duen komunikabidea da baina bizitasun handia ematen dio proiektuari. Administrazio kontseiluak, balorazio hau egin zuen urte amaieran.

- 2020a harpidetzak lantzeko urtea izan behar du eta, ohiko harpidetzari bizkarra eman gabe, desafio nagusia, Atarikide Digitalak izan behar dute.
- Herri txikiak zaindu egin behar ditugu; albiste gutxi dauden herrietan bertara joan beharko litzateke edo herrian konplizeak bilatu.
- Multimedia edukietan sakondu behar da.
- Aldizkariaren formatua berritu behar da.



## GALTZAUNDI TABERNA

Urtebeteko eskaseko ibilaldia izan du egitasmo honek. 2019ko urriaren hasieran itxi behar izan ziren Galtzaundi Tabernaren ateak ekonomikoki ez zelako bideragarria eta eragiten zituen galerak ez zirelako jasagarriak.

Erabaki hori behartu duen alderdi txarra aipatuta, komenigarria da esperientziaren alderdi onak aipatzea ere: lbarran euskara erreferente den proiektua izan da; 10 kultur ekitaldi antolatu dira bertan (hiru 2018an eta zazpi 2019an); saiakera egin izanaren damurik ez da izango; lau lanpostuak duhin mantendu dira epe horretan eta aldikako beste batzuk; kanpo jatorriko petsona bati amesten zituen herritartasuna lortzeko aukera eman dio.

Urteko azken hilabeteak kontuak argitzeko eta garbitzeko izan dira.





## PARTE-HARTZEAK

---

Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.: Tolosaldeko Ataria ekoizten duen empresa da hau. Galtzaundi Euskara Taldeak %25eko parte-hartzea du kapitalean eta, estatutuek jasotzen duten bezala, Administrazio Kontseiluko lehendakaritza dagokio Galtzaundi Euskara Taldeari. Xabier Saizarrek bete du kargua sorreraz gero; Garikoitz Goikoetxeak hartu du ardura hori 2019an.

Euskaltzaleen Topagunea: Euskal Herriko euskara elkarten bilgunea da hau eta bertako kidea da Galtzaundi Euskara Taldea sorreratik bertatik. Administrazio Kontseiluko kide izatea proposatu ziguten 2019an. Zuzendaritza Batzordeak Jexux Murua izendatu zuen eta, beraz, Administrazio Kontseiluko kidea da maiatzaz gero.





# TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA (TEM)

Zer da Tolosaldeko Euskararen Mahaia (TEM) 2017an diseinatzen hasi eta Galtzaundi Euskara Taldea bultzatzen ari den egitasmo konplexua. Sei hilabete-ko egosialdiaren ondoren, 2018ko apirilean elkartu zen lehen aldiz Lehiber-rrin TEM sustatzeko batzordea. Han zeuden udal ordezkari politikoak (Tolosa eta Abaltzisketako alkateak, eta Alegia, Berastegi eta Asteasuko zinegotziak), Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasun zuzendaria, UEMA eta Tolosaldeko Euskara Teknikarien batzordeko ordezkariak, Galtzaundi Euskara Taldea eta Larramendi Bazkunako ordezkariak, Tolosaldea Garatzeneko ordezkaria eta genero berdintasuna eta bizikidetzaren ikuspegia zaintzen lagunduko ziguten adituak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuna eta Kudeaketa Estrategiako zuzendaritzaren babesa izan zuen ekimenak hasiera-hasieratik; Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika saila ere bildu zen egitasmoa urte horretako ekainetik aurrera.

Estrategia berritzaile eta inklusiboa garatzeko helburua izan dute Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren sustatzaileek; euskalgintza instituzionalaren eta soziala- ren sentsibilitateak eta lan ereduak uztartuko dituen estrategia adostu nahi izan da, lidergo partekatu batekin eta helburu komun baten bila: Tolosaldean euskararen etorkizuna bermatzea eta, azken misio gisa, berau eskualdeko hizkuntza nagusi izan dadin lortzea. Horrela, Tolosaldean euskara indarber- ritzeko eta bere erabilera normalizatzeko bide berriak jorratu nahi dituzte mahaiaren sustatzaileek, gizartearen bilakaerak gobernantza eredu ezberdina eskatzen duela ulertuta. Bide erakusle izan nahi lukete alde horretatik, baina baita euskararen normalizazioari dagokionez ere, Tolosaldeak beste zenbait eskualderentzako erreferente bilakatzeko baldintza egokiak betetzen dituela uste baitute.

Hala, 2019an proiektua egonkortzeko urratsak ematea erabaki zuen susta- tzaile taldeak eta lan ildo hauek zehaztu ziren: 1, eskualdeko udalen eta eragile sozailen atxikimenduak bildu eta gizarteratu. 2, Sustatzaile mahaia zabaldu, hezkuntza eta euskalduntze sektoreko ordezkariak erakarriz bertara. 3, izaer- ra, egitura eta funtzionamendua proiektua garatu. 4, hiru urterako ekintza plana zehaztu.

Martxoan 28an elkartu ziren Alegiako udaletxean euskararen indarberritze- ko ahaleginean ari diren hainbat erakunde (eskualdeko udalak, GFA, UEMA) eta eragile (Ikastetxeak, Euskaltegiak, Euskara eta Kultura Elkartek, Tokiko





Hedabideak) Tolosaldeko Euskararen Mahaiarekiko konpromiso adierazpena gizarteratzeko. Bertan, euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren bilgunea eratu eta indartzeko asmoa plazaratu zen, bat egin zen bilgune horren misio eta helburu estrategikoekin, eta sinatu zutenek Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan partaide izateko eta lankidetzaren eredua partekatuan sakontzeko konpromisoa adierazi zuten.

TEM sustatzaile mahaia edo Zuzendaritzan sartu ziren hezkuntza eta euskalduntze alorretako ordezkariak, eta aurreikusitako bi lan ildoak garatu dira 2019an zehar: batetik, Tolosaldeko Euskararen Mahaia definitzeko eginkizuna eman zaio Siadeco ikerketa talde ezagunari, zeinek bilgune horren funtzio, lan ildo, izaera, egitura eta bideragarritasun plana biltzen dituen proiektua landu duen; eta bestetik, 2020-2022 urte arteko plangintza garatu dute Tolosaldeko UEMA eta udaletako Euskara Teknikarien batzordeak. Metodologiari dagokionez, biak hala biak saiatu dira ahalik eta era parte-hartzaileenean taxutzen.

Urte amaieran, TEM izaeraren, egituraren eta funtzionamenduaren inguruko azterketa eta TEM 2020-2022 ekintza plana Udal ordezkariari aurkezteko saioak egin ziren Tolosako udaletxean (Tolosako Udala), Amasa-Villabonako udaletxean (Amasa-Villabona, Anoeta, Ibarra, Irura eta Zizurkil) eta Ikaztegiako kultur etxean (eskualdeko gainerako udalak). Abenduaren 19an elkartu zen azkenekoz TEM-zuzendaritza azken dokumentuak aztertzeko. Agerian gelditu ziren dauden adostasun nagusiak (misioa, helburuak, eskualde ikuspegia, ekintza ildo zehatzak, euskalgintza instituzional eta sozialaren benetako lankidetzan oinarritutako gobernantza...), zalantzak eta zailtasunak (izaera, egitura, baliabideen berrantolaketa moduak, finantzaketa ...). Halere, 2020an jarraipena emateko ahalegina egitea deliberatu zen; proiektu konplexua da, erosotasun gunetik ateratzea eskatzen du, funtzionamendu moldeak berritzea, erabakiguneak partekatzea desberdinekin, eta ohituak ez gauden inbertsio ekonomikoa egitea. Hitz gutxitan: ausardia!

2018an bidea hasi zenetik, hauek dira Tolosaldeko Euskararen Mahaia eraketa prozesu hau gidatzen duen bilgunean parte hartzen ari direnak: Jon Zubizarreta (Abaltzisketako Udala); Arantxa Irazusta eta Mikel Artola (Alegiako Udala); Larraitz Alkorta eta Haritz Mujika (Asteasuko Udala); Aritz Mujika, Mikel Beloki eta Amaia Azkue (Berastegiko Udala); Olatz Peon eta Xabier Balerdi (Tolosako Udala); Garbiñe Zubizarreta eta Joxean Amundarain (GFA-ko Hizkuntza Berdintasun Zuzendaritza); Estibalitz Alkorta eta Josune Zabala (EJ-HPsko Sustapen eta Ikerketa zuzendaritzak); Imanol Haro, Maier Ugartemendia eta Miren Segurola (UEMA); Idoia Olano (Euskara Teknikarien Batzordea); Arantzasu Goenaga (Eskola Publikoa), Iñaki Olaetxea (Ikastolak) eta Nerea Bastarrica (Kristau Eskolak); Axun Lopetegi (Aitzol euskaltegia) eta Jone Tolosa (AEK euskaltegia); Joxin Azkue (Manuel Larramendi Bazkuna); Xabier Bengoetxea eta Kike Amonarriz (Galtzaundi Euskara Taldea); Garbiñe Mendizabal (Tolosaldea Garatzen-Udalak); Lorea Agirre (genero ikuspegia); Ana Telleria (aniztasuna-migrazioa ikuspegia).

<https://www.galtzaundi.eus/37-erakundek-eta-elkartek-hartu-dute-konpromisoa-tolosaldeko-euskararen-mahaia-eratzeko/>

<https://www.galtzaundi.eus/tolosaldeko-euskararen-mahaia-udaltop-jardunaldietan/>

<https://www.galtzaundi.eus/tolosaldeko-euskararen-mahaia-une-erabakigarrian/>



**2019KO MEMORIA**

